

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

DaltoApp koloreak bereizteko arazoak dituzten pertsonentzat zuzenduta dagoen aplikazio bat da, bereziki daltonismoa dutenentzat. Beraz, DaltoApp-en erabiltzaileak, teknologiaren erabilpenaren jakintza izan behar dute, hau da, mugikor baten erabilpena kontrolatu behar dute. Hala ere, erabiltzeko ez du konplexutasunik, nahiko xumea baita.

Munduan %92ko populazioak mugikorra erabiltzen du eta gehienek interneta eskura dute. Beraz, honek era batera edo bestera, DaltoApp-ek merkatuan sartzeko ez duela zailtasunik izango esan dezakegu. Espainian, interneta duten pertsonen %80 34 eta 64 urte bitartekoak dira. Merkatuak aurrerapen asko jasan ditu azken urteetan, eta saltzeko eta eroste prozesua hobetu du.

Gure helburu-publikoa 15 eta 60 urte inguruko pertsonak dira, adin honetako pertsonak baitira gure produktua erosteko interesa izan dezaketenak. Izan ere, 15 urtetik beherakoek ez diote erabilpen handirik emango aplikazioari, askok ez baitute eskura mugikorrik edo haien gurasoen menpe daudelako. Nerabeek aplikazioa erabiltzeko beste arrazoi bat haien autoestimua lagundu diezaieketelako da. 60 urtetik gorako gehienek, aldiz, ez daude eguneratuak gaur egungo teknologia berriekin, eta ondorioz, gure aplikazioari ez diote garrantziarik emango. Beraz, pertsona helduak izango dira gure bezero nagusiak, teknologiari gehien ohituak daudenak baitira. Hala ere, nahiz eta aplikazio bat izan, oso erraza da deskargatzeko eta ulertzeko.



Gure aplikazioa instalatuko duten pertsonak edozein motatakoak izan daitezke, hau da, kasuarekin identifikatuta sentitzen den edonork erabil dezake, ez du zertan gaixotasun batean diagnostikatua egon behar. Baina ikerketak egin ostean, munduko biztanleen %8 daltonismoa du; arrazoi horregatik, gure aplikazioarekin hobekien lotzen direnak hauek izango dira.

